



"VPO" GABE, UA 6 PLAN BEREZIAK EZ DU JUSTIFIKAZIORIK.

LEZAMA BIZIRIKek LEGE-ERREKURTSOA AURKEZTEA AZTERTUKO DU

BLA BLA BLA ASKO, BAINA "VPO"RI BURUZ EZER EZ.

Bla, bla, bla, bla, bla, bla, bla, bla,
bla, bla, bla, bla, bla, bla, bla, bla,
bla,

Barkatu, eta "VPO"taz?, "VPO"ri
buruz ezer ez.

Duela 46 urte Lezamako udalaren
agintea hartu zuen alderdiak
aurpegi gogor nahikorik dauka,
izapidetzen ari den etxebizitza plan
berezian, UA 6 ospetsuan, (edo "Pan
Txupetxa Bis" bezala ezagutzen
dena), babes ofizialeko etxebizitza
bakar bat ere ez dela egongo
iragartzeko.

Eta lotsak estaltzeko, zikinkeria
banatzen dute, alderdi berak duela
10 urte baino gehiago alkatetzatik

egin zuen bezala, Txupetxa Plan
zaharra auzitegietan defendatzeko.
Azkenean ez zien ezertarako balio
izan, Txupetxa Plana Tribunalek
deuseztatu egin baitzuten.

Eta, lau hamarkadatan egin duten
bezala, orain betiko mezuarekin
itzuli dira "VPO" delakoari buruz:
"Hurrengo planean" egingo dugu,
bai, baina orain izapidetzen ari
garen planean ez. Beti uzten da
"hurrengorako".

Oraingo koartada hurrengo HAPOa
da. HAPO hori, ordea, aurrekoa
baliogabetu zenetik (2018an!), ez
dute izapidetu ere egin nahi izan
orain arte. Eta orain, 6 urte geroago,
arrapaladan martxan jarri dute.
Zergatik izango da?

UDALA GOBERNATZEN DUEN ALDERDIAK EZ DU "VPO" DELAKO ETXEBIZITZARIK NAHI LEZAMAN.

Lezama Bizirik-i iruditzen zaigu ez
dutela inolako interesik HAPO berri
bat garatzeko. Aitzitik, badirudi
izapidetze berantiar hori "Txupetxa
Plana Bis" babesteko erabili
nahi dutela, plan horrek legezko
etorkizun oso eztabaidagarria
duelako, norbaitek errekurtsua
aurkeztuz gero.

Hamarkadetako esperientziak
dioenez, udalean agintzen
duen alderdiak, gertatzen dena
gertatzen dela, ez du inoiz ezer

jakin nahi Lezaman babes ofizialeko etxebizitzak sustatzeaz.

Lau hamarkada baino gehiagotan alkatetzan egon den alderdiak oso aitzakia desberdinak erabili ditu, baina , banan-banan, erortzen joan izan zaizkio. Duela ia 20 urte izan zen Lezama "ez zegoela herri abegikorra izatera deituta". Orain ez dute hori idazten, baina batek baino gehiagok ziur pentsatzen jarraitzen duela.

Gero esan zuten Lezaman ez zegoela horrelako etxebizitzarako eskaerarik... eta gazteek, hamarnaka, beste herri batzuetara joaten jarraitu behar izan dute etxebizitza eskuragarria izateko. Gero etorri zen "VPO"etan Lezaman bizi zirenek ez zutela kanpokoekiko balorazio berezirik izango, eta Etxebideren ordezkariak etorri behar izan zuen frontoian publikoki esatera lezamarrek puntuazio gehigarria dutela etxebizitza babestuen esleitzeko orduan.

Azkenaldian beste aitzakia bat asko erabili dituzte: udalak ez du dirurik... eta 2023an Udalak milioi eta erdi euro baino gehiago gastatu ditu inbertsioetan, eta horien lehentasuna, babes ofizialeko etxebizitzak sustatzearen aurretik, oso eztabaidagarria da (Goitioztako txokoa, Kurutzeko ermita, urbanizazio pribatua erdigunean, pump track frontoiaren ostan, jolas-guneen estaldura...).

Eta azken aitzakia hori ere baztertuta, azken aste hauetako izarra: "Babes ofizialeko etxebizitzak egiteko dirua jartzen badugu, ez dugu kontrolatzen nori ematen zaion etxebizitza hori... Eusko Jaurlaritzak esleitzen baitu, bere baremoen arabera... Dirua jartzen badugu, nori eman erabaki nahi dugu; horregatik, udal-tasatuak nahiago ditugu..." Honen arrazoiaren aurrean iruzkinak soberan daude.

UDALAK TASATUTAKO ETXEBIZITZA EZ DA "VPO" DELAKO ETXEBIZITZA.

Udala gobernatzen duen alderdiak ez daki nola justifikatu Lezama babes ofizialeko etxebizitzarik ez duen herri bakarrenetako denik. Horregatik, etxebizitza babestua zer den azaltzeko kontzeptuak nahastu eta azalpen nahasgarriak ematen dituzte. Hain zuzen ere, "babesa publikoko etxebizitza" deitzen zaie guztiei, baina, babestutako etxebizitza bereziak alde batera utzita, hiru babes-mota baino ez dira erabilienak eta ezagunenak: erregimen orokorreko "VPO" gisa ezagutzen dena, etxebizitza tasatu autonomikoarena eta udal- tasatuarena.

Lehenengo biak Eusko Jaurlaritzak esleitzen ditu, irizpide publiko ezagun eta barematuen arabera; hirugarrena, berriz, udalak berak markatzen dituen irizpideen arabera ematen du. Ez da beharrezkoa igarlea izatea sumatzeko zergatik udala gobernatzen duen alderdiak udal tasatu batzuk besterik ez duen sustatu nahi. Zergatik izango da?

2018an aurreko HAPO baliogabetu zenetik, Lezama Bizirik-ek behin eta berriz eskatu du berehala HAPO berri bat izapidetzen hastea, eta, Lezaman etxebizitza babestuaren beharra dagoela jakinda, prest agertu da, bien bitartean, Etxebizitza Plan Berezi bat onartzeko, plan horrek izapidetze sinpleagoa eta azkarragoa zuelakoan.

Hala ere, aukera hori problematikoa da legearen ikuspuntutik, norbaitek errekurtsio bat aurkezten badu. Auzitegiek uler dezaketelako baliogabetutako HAPOaren zati bat garatu nahi dela. Lezama Bizirik-ek beti agertu du prest akordio baterako eta Plan Berezi baten aurka ez jotzeko, baina baldintza bakar batekin: Etxebizitza plan berezi horretan babes ofizialeko etxebizitzen eskaintza garrantzitsua egon behar zela.

"VPO"RIK GABE, LEZAMA BIZIRIK- EK UA 6 PLAN BEREZIA LEGEZ ERREKURRITZEA AZTERTUKO DU.

Lehen ere esan dugu eta berretsi egiten dugu: UA 6 Plan Bereziak, Udalaren hasierako onarpena jaso duenak, ez du babes ofizialeko etxebizitza bakar bat ere jasotzen. Eta guretzat, baldintza hori gabe, UA 6 planak bere justifikazio guztia galtzen du.

40 etxebizitza libre gehiago eta 10 udal-etxebizitza tasatu eskaintzea ez da Lezamak behar duena. Negozio gehiago ekarriko du batzuentzat, eta guztion dirua erabiliko du Eusko Jaurlaritzak kontrolatzen dituen irizpide publikoak alde batera utzita udalaren gobernuak hautatutakoak izango diren batzuei dirulaguntzak emateko.

Ondorioz, iragarri dugun bezala, Plan horretan adierazitako zentzuan aldaketarik egiten ez bada, Lezama Bizirik elkarteak gogoeta-aldi bat irekiko du UA 6 Plan Berezia legez errekurritu ala ez erabakitzeko.

Horren guztiaren berri emango dugu unean-unean.



SIN VPO, EL PLAN ESPECIAL UA 6 NO TIENE JUSTIFICACIÓN.

LEZAMA BIZIRIK ESTUDIARÁ PRESENTAR EL RECURSO LEGAL

MUCHO BLA BLA BLA, PERO DE LAS VPO NADA DE NADA

Bla, bla, bla,bla, bla ,bla, bla, bla, bla, bla, bla, bla ,bla, bla,bla, bla, bla, bla, bla, bla, bla, bla, ,.....

Perdón, y de las VPO?. De las VPO nada.

Al partido que cogió la alcaldía de Lezama hace 46 años no se le cae la cara de vergüenza para anunciar que en el próximo plan de vivienda que tramita, el famoso UA 6, o, como ya se le conoce popularmente, el "Pan Txupetxa Bis", tampoco habrá ni una sola vivienda VPO.

Y para tapar sus vergüenzas reparten porquería a diestro y siniestro, como ya hizo el mismo partido, desde la alcaldía, hace más de 10 años, para

defender precisamente el antiguo Plan Txupetxa ante los tribunales. Al final no les sirvió para nada porque el Plan Txupetxa acabo siendo anulado.

Y, tal y como llevan haciendo durante cuatro décadas, ahora vuelven con el mensaje de siempre: En el "próximo" plan sí, pero en el que tramitamos ahora no. Siempre es "el próximo".

Ahora la coartada es el próximo PGOU. Un PGOU que sin embargo, desde la anulación del anterior, jén el año 2018!, no han querido ni siquiera tramitar. Y ahora, 6 años después, lo ponen en marcha. ¿Por qué será?

EL PARTIDO QUE GOBIERNA EL AYUNTAMIENTO NO QUIERE VPO EN LEZAMA. CUALQUIER EXCUSA ES BUENA.

A Lezama Bizirik nos da la impresión de que no tienen ningún interés en desarrollar un nuevo PGOU. Más bien parece que esta tramitación tardía quieren utilizarla para que sirva de cobertura al "Plan Tupetxa Bis", porque éste tiene un futuro legal muy incierto, en caso de que alguien lo recurra.

La experiencia de décadas nos dice que el partido que gobierna

en el ayuntamiento, pase lo que pase, nunca quiere saber nada de promocionar VPO en Lezama.

Durante más de cuatro décadas ha utilizado excusas muy diferentes, y, una a una, se le han ido cayendo. Hace casi 20 años fué que Lezama no estaba llamado a ser un pueblo de acogida. Ahora no lo escriben pero, seguro, más de uno lo sigue pensando.

Después dijeron que en Lezama "no había demanda de ese tipo de vivienda"...y los jóvenes, por decenas, han tenido que seguir marchándose a otros pueblos para poder tener una vivienda asequible.

Luego vino el "mantra" de que en las VPOs los residentes en Lezama no "puntuaban" más que los de "fuera", y tuvo que venir el delegado de Etxebide para decir públicamente en el frontón que los lezamarras sí tienen una puntuación adicional para la adjudicación de las viviendas protegidas.

Últimamente han utilizado muchos otros "mantras": "el ayuntamiento no tiene dinero"... y resulta que en el año 2023 el Ayuntamiento se ha gastado más de millón y medio de euros en inversiones cuya prioridad, por delante de la de promocionar VPO, es muy discutible (txoko de Goitioltza, Hermita de Kurutze, urbanización privada en el centro, pump track tras el frontón, cobertura zona juegos...).

Y descartada también esta última excusa, la estrella estas últimas semanas: "Si ponemos dinero para hacer VPO no controlamos a quién le damos la vivienda... el Gobierno Vasco es quien adjudica según sus baremos..." "Si ponemos dinero queremos reservarnos el derecho a decidir a quién se lo damos, por eso preferimos la tasadas municipales...". Sobran los comentarios.

VIVIENDA TASADA MUNICIPAL NO ES VIVIENDA VPO.

El partido que gobierna el ayuntamiento no sabe ya como justificar que Lezama sea uno de los poquísimos pueblos de no tenga ni una VPO. Por eso recurren a mezclar conceptos y a dar explicaciones equívocas sobre qué es vivienda protegida.

Efectivamente a todas se les llama "viviendas protegidas" pero, dejando al margen las viviendas protegidas especiales, sólo tres tipos de protección son los más utilizados y conocidos: el que se conoce como "VPO de régimen general", el de la vivienda "tasada autonómica" y el de la "tasada municipal".

Las dos primeras las adjudica el Gobierno Vasco en base a criterios públicos conocidos y baremados, la tercera la concede el ayuntamiento... en base a criterios que él mismo marca. No hace falta ser adivino para intuir por qué el partido que gobierna el ayuntamiento sólo quiere promocionar unas cuantas viviendas "tasadas municipales". ¿Por qué será?.

Desde que se anuló el anterior PGOU en 2018, Lezama Bizirik ha pedido repetidamente iniciar de inmediato la tramitación de un nuevo PGOU y, consciente de la necesidad de vivienda protegida en Lezama, ha mostrado su disposición a aceptar, mientras tanto, un Plan Especial de vivienda, porque éste tiene una tramitación más simple y más rápida.

Sin embargo esta opción es problemática desde el punto de vista legal en el caso de que alguien plantee un recurso. Los tribunales podrían entender que se pretende desarrollar una parte del PGOU anulado.

Lezama Bizirik siempre ha mostrado su disposición a un acuerdo, y a no recurrir un Plan Especial, pero con una sólo condición: En ese plan especial de vivienda debe haber una oferta importante de VPO.

SIN VPO, LEZAMA BIZIRIK SE PLANTEARÁ RECURRIR LEGALMENTE EL PLAN ESPECIAL UA 6.

Ya lo hemos dicho antes y lo ratificamos: el Plan Especial UA 6 que ya ha recibido la "Aprobación Inicial" del Ayuntamiento no recoge ni una sola vivienda de VPO. Y para nosotros, sin ese requisito, el Plan UA 6, pierde toda su justificación.

Ofrecer 40 viviendas libres más y 10 viviendas tasadas municipales no es lo que necesita Lezama. Sólo traerá más negocio para algunos y utilizar dinero de todos para "subvencionar" a algunos "elegidos" al margen de los criterios públicos que controla el Gobierno Vasco.

En consecuencia, tal y como lo hemos venido anunciando, en el caso de que en el citado Plan no se introduzcan modificaciones en el sentido apuntado, la asociación Lezama Bizirik abrirá un periodo de reflexión entre sus componentes para decidir si recurre legalmente el llamado Plan Especial UA 6.

De todo ello informaremos puntualmente.